

ESCLAVAS DEL SIGLO XXI

Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua

Agenda
2030

paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-navarroa

Vidas atrapadas en los sistemas Sumangali y Kafala



END
SLAVERY
TODAY



XXI. MENDEKO ESKLABOAK

Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua

2030

CCO

paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa

Sumangali eta Kafala sistemetan preso dauden bizitzak



END
SLAVERY
TODAY





TRABAJO Y EXPLOTACIÓN EN LA ERA GLOBAL

La sociedad actual vive en una era marcada por una **globalización económica** que ha profundizado las desigualdades estructurales en el mundo. Modelos productivos basados en la externalización, la deslocalización y la lógica de maximización de beneficios han generado un terreno fértil para **formas contemporáneas de esclavitud y explotación laboral**. El fenómeno afecta desproporcionadamente a **mujeres, niñas, migrantes y personas racializadas**, situándolas en contextos de gran vulnerabilidad y con escaso acceso a derechos básicos.



50

millones de personas se encontraban en situación de esclavitud moderna en 2021.


x3

La probabilidad de ser sometidas a trabajos forzados es **tres veces mayor para las personas migrantes**.

3,3

millones de niñas y niños realizan trabajos forzados, y más de la mitad son víctimas de la explotación sexual comercial.

Los sistemas **Sumangali** y **Kafala** constituyen dos ejemplos paradigmáticos de cómo las **cadenas globales de producción y la movilidad humana** son instrumentalizadas para perpetuar modelos laborales abusivos y patriarcales.



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa

Gobierno
de Navarra




Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



CASOS DE ESCLAVITUD MODERNA: SUMANGALI Y KAFALA



Sumangali es una expresión en idioma Tamil que significa **“mujer felizmente casada”** y se utiliza para designar una práctica de **explotación laboral** que se lleva a cabo principalmente en la **industria textil del sur de la India**, con mayor presencia en los estados de Tamil Nadu y Karnataka.



El **Kafala** es un sistema de **patrocinio laboral** que rige la situación de cientos de miles de **trabajadoras domésticas migrantes en los países del Golfo, Jordania y Líbano**.

Estas mujeres provienen, sobre todo, de países africanos y del sur y sureste asiático, como Etiopía, Nepal, Sri Lanka, Kenia, India, Bangladesh, Pakistán, Filipinas, Madagascar o Senegal.

Ambos sistemas representan la continuidad de un modelo global de dominación que se apoya en el género, la raza y la clase para mantener estructuras de poder. Son **mecanismos que esclavizan legal e informalmente**, y que aún hoy son tolerados por estados y empresas bajo la excusa del desarrollo económico o la competitividad internacional.



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa



LANA ETA ESPLOTAZIOA ARO GLOBALEAN

Gaur egungo gizartea **globalizazio ekonomikoak** markatutako aro batean bizi da, munduan dauden desberdintasun estrukturalak sakondu dituenak. Zerbitzuak kanpora ateratzean, deslokalizazioan eta etekinak maximizatzeko logikan oinarritutako produkzio-ereduek **esklabotzaren eta lan-esplotazioaren forma garaikideetarako** egoera aproposa sortu dute. Fenomeno honek proportzio handiagoan eragiten die **emakumeei, neskei, migratzaileei eta pertsona arrazializatu**ei, hauek oso egoera zaurgarrian jarritz eta beren oinarritzko eskubideak murriztuz.



50

2021ean, **50 milioi pertsona** esklabotza modernoaren menpe zeuden.

x3

Migratzaileek hiru bider probabilitate gehiago dute bortxazko lanak pairatzeko.

3,3

milioi haurrek bortxazko lanak egiten dituzte eta horietatik erdiak baino gehiago sexu-esplotazio komertzialaren biktima dira.

Ekoizpen-kate globalak eta giza mugikortasuna abusuzko lan-eredu patriarkalak betikotzeko instrumentalizatzearen bi adibide paradigmatico ditugu **Sumangali eta Kafala** sistemak.



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua




AGENDA
2030





ESKLABOTZA MODERNOAREN KASUAK: SUMANGALI ETA KAFALA




Sumangali hitzak Tamil hizkuntzan **“emakume ezkondu zoriontsua”** esan nahi du eta lan esplotazio mota bat izendatzeko erabiltzen da, gehienbat **India Hegoaldeko ehungintzan** egiten dena, batez ere Tamil Nadu eta Karnataka estatuetan.



Kafala lan-babesletza sistema bat da, ehunka mila **etxeko langile migratzailer**en egoera arautzen duena Golkoko herrialdeetan, Jordanian eta Libanon. Emakume hauek herrialde afrikarrekoak eta Asia hegoalde eta hego-ekialdekoak dira, hala nola, Etiopia, Nepal, Sri Lanka, Kenia, India, Bangladesh, Pakistan, Filipinak, Madagaskar edo Senegal.

Botere-egiturak mantentzeko, generoan, arrazan eta klasean oinarritutako mundu-mailako eredu menderatzaile baten jarraipena irudikatzen dute bi sistemek. **Legalki eta informalki pertsonak esklabo bihurtzen** dituzten mekanismoak dira, oraindik ere estatuek eta enpresek onartzen dituztenak, garapen ekonomiko edo nazioarteko lehiakortasunaren aitzakiapean.



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-navarra

Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua



SUMAN GAL

ESCLAVAS DEL SIGLO XXI

XXI. MENDEKO ESKLABOAK

END SLAVERY
TODAY



END SLAVERY
TODAY



KAFALAK

ESCLAVAS DEL SIGLO XXI

XXI. MENDEKO ESCLABOAK



END SLAVERY TODAY





SUMANGALI

En el sistema Sumangali, mujeres jóvenes de baja cualificación, la mayoría **menores de edad entre 12 y 18 años**, son contratadas bajo la promesa de un salario y el pago de una suma al final de un período de trabajo que suele durar 3 años. Las **familias más empobrecidas** lo ven como una oportunidad de conseguir el dinero suficiente para que sus hijas puedan contraer matrimonio.

Sin embargo, las condiciones laborales similares a la **servidumbre o esclavitud** incluyen largas horas de trabajo, espacios insalubres, salarios inferiores a los fijados por la legislación, así como abusos físicos y sexuales. Las jóvenes **viven en albergues cercanos a las fábricas textiles**, a menudo hacinadas, despojadas de libertad de movimiento y expuestas a la vigilancia y violencia de los supervisores, en su mayoría hombres.

Esta jaula simboliza la forma de esclavitud moderna que sufren las jóvenes indias bajo el sistema Sumangali y los elementos que forman parte de la vulneración de sus derechos.



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra·navarroa

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



END SLAVERY TODAY




KAFALA

En el sistema Kafala, las mujeres migrantes son reclutadas a través de agencias o particulares en sus países de origen con **la promesa de empleos dignos, salarios estables y la posibilidad de enviar remesas a sus familias**. Sin embargo, algunos estados no reconocen el trabajo doméstico en su legislación laboral, lo que deja a estas trabajadoras **fuera de cualquier marco de protección legal**. Para residir y trabajar legalmente en el país, deben estar vinculadas a un empleador o kafíl, quien actúa como su patrocinador legal y ejerce un **control casi total sobre su vida**.

Esta relación de dependencia extrema permite a los empleadores confiscar sus pasaportes, impedirles salir del hogar, someterlas a jornadas laborales interminables y, en muchos casos, negarles el salario pactado. Se han identificado situaciones de **abuso físico, psicológico y sexual, así como múltiples casos de trata y explotación**.

Esta jaula simboliza la forma de esclavitud moderna que sufren las trabajadoras migrantes en los países del Golfo, Jordania y Líbano, y los elementos que forman parte de la vulneración de sus derechos.



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra·navarroa

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

END SLAVERY TODAY





SUMANGALI

Sumangali sisteman, kualifikazio txikiko emakume gazteak, gehienak **12 eta 18 urte artekoak**, kontratatu egiten dituzte honako promesaren bidez: soldata bat jasoko dute eta 3 urte inguruko lanaldi baten ostean, diru-kopuru bat. **Familia pobretuenei** aukera ona iruditzen zaie beren alabak ezkondu ahal izateko diru nahikoa lortzeko.

Ordea, **mirabetzaren edo esklabotzaren** antzeko lan-baldintzak dituzte: lanaldi luzeak, leku osasungaitzak, legediak ezarritakoaren azpiko soldatak, baita abusu fisiko eta sexu-abusuak ere. Emakume gazteak **ehungintza lantegietatik hurbil dauden ostatueta**n bizi dira, maiz metatuta, mugitzeko askatasunik gabe eta gehienbat gizonak diren gainbegiraleen zainketa eta indarkeriaren arriskupean.

Kaiola honek Sumangali sistemapean indiako emakume gazteek sufritzen duten esklabotza modernoa irudikatzen du, baita beren eskubideen urraketaren elementuak ere.



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



END SLAVERY TODAY




KAFALA

Kafala sisteman, emakume migratzaileak agentzien bidez edo partikularren bidez biltzen dituzte beren jatorrizko herrialdeetan, honako promesaren bidez: **lan duinak, soldata egonkorrak eta familiari dirua bidaltzeko aukera**. Ordea, estatu batzuek ez dute etxeko lana beren lan-legerian aitortzen, beraz langile hauek **legez kanpo eta babesik gabe** uzten dituzte. Herrialdean bizi eta lan egiteko, ugazaba edo kafíl bati lotuta egon behar dute, zeina legezko babesle moduan aritzen den eta **langilearen bizitzarengan ia erabateko kontrola** duen.

Muturreko mendekotasun-harreman honek ugazabei ahalbidetzen die pasaportea konfiskatzea, etxetik irtetea galaraztea, lanaldi amaiezinak ezartzea eta, askotan, itundutako soldata ukatzea. **Abusu fisiko, psikologiko eta sexualeko kasuak egon dira, baita salerosketa eta esplotazio kasuak ere.**

Kaiola honek Golkoko herrialdeetan, Jordanian eta Libanon emakume langile migratzaileek sufritzen duten esklabotza modernoa irudikatzen du, baita beren eskubideen urraketaren elementuak ere.



paz y solidaridad
bakea eta elkartasuna
navarra-nafarroa

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

